



m onografikoa

ondare
etnografikoa



EUSKAL ETNOGRAFIA-
ONDAREAREN INBENTARIOAREN
HASTAPENAK

(L A B U R P E N A)

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	1
FITXA SINOPTIKOA.....	2
I. HELBURUAK	4
II. EGITURA ETA METODOLOGIA	5
III. EDUKI NAGUSIAK.....	7
1. Abiapuntua.....	7
1.1 Etnografia-ondarearen inbentarioen egoera EAEn	8
1.2. Tradizioaren eramaileak	9
2. Zuzenbide-esparruaren azterketa	9
2.1. Etnografia-ondarea kultura-ondarearen barruan.....	9
2.2. Ondarea babesteko ardura: ohar bat	11
2.3. Etnografia-ondarea eta museoak	11
2.4. Aholku-batzordeak	11
2.5. Etnografia-ondarearen babes-mailak.....	12
2.6. Babes hedakorra/babes trinkoa dikotomia.....	13
3. Erreferentzia-ereduak	13

3.1. Katalunia: Etnologia Ondarearen Zentroa	13
3.2. Valentzia: Ondarearen Inbentario Orokorra.....	16
3.3. Asturias: Etnografia Museoen Sarea.....	18
3.4. Errioxa: nortasun-ezaugarri baten aukeraketa	18
3.5. Kantabria: sailkatzeko zenbait kategoria.....	19
4. Ondorioak: laburpena eta bidea finkatzeko ildoak	20

AURKEZPENA

Luberri comunic.action enpresak egindako *Euskal etnografia ondarearen inbentarioaren hastapenak* txostenaren laburpen trinkoa jasotzen du dokumentu honek. Txostena 2004ko udazkenean eskatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, eta 2005eko otsailean amaitu zen.

Azterketa hastapena da funtsean, egin nahi den bidearen urrats bat, eta kultura-ondarearen zati diren sektore guztiei egiten die erreferentzia; hala ere, etnografia-ondarea azpimarratzen du zuzenean.

Dokumentu osoa Kulturaren Euskal Behatokiaren bulegoetan kontsulta daiteke, Lakuan, edo helbide elektronikoa honetan eskatu: kulturabehatokia@ej-gv.es

FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
Azterlanaren izenburua	Euskal etnografia ondarearen inbentarioaren hastapenak
Burutu duen erakundea	Luberri Communic.Action.S.L.
Orrialde kopurua	89
Burutu zen urtea	2005
Inplikaturako sektorea(k)	Etnografia-ondarea
Aurrekariak	Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenak
Helburuak	Etnografia-ondarearen inbentarioa prestatzeko urratsen erreferenteak ematea da helburu nagusia.
METODOLOGIA	
Ikerketa-metodologia	Kuantitatiboa: kasuak aztertzea, eta legeak eta hainbat informazio-iturri berrikustea.
Informazioaren ezaugarriak	<p>Azterketa lau kapitulu zabaletan egituratu da:</p> <p>Hasteko, hauek aurkezten dira: abiapuntua (definizioa eta kontzeptua); ikerketen egoera; ondarea bera eta haren ingurunea etnografia-ondareztat hartzea; eta inbentarioen eta tradizioaren eramaileen egoeraren berri ematea.</p> <p>Bigarren kapitulan, zuzenbide-esparrua aztertzen da: etnografiaren esparrua kultura-ondarearen barruan kokatzen du; babesteko ardurei buruzko ohar bat eman eta museoekin zer harreman duen aipatzen da; aholku-batzordeak azaltzen du; etnografia-ondarearen babes-mailak eta babes hedakorra/babes trinkoa dikotomia azaltzen du.</p> <p>Hirugarren kapitulan, erreferentzia-ereduak aztertzen dira: Kataluniako Etnologia Ondarearen Zentroa; Valentziako Etnologia Inbentario Orokorra; Asturiasko Etnografia Museoen Sarea; Errioxan egindako nortasun-ezaugarri baten aukeraketa; eta Kantabriako sailkatzeko zenbait kategoria.</p> <p>Laugarren kapitulan, ondorio nagusiak laburtu eta Euskadiko inbentarioa egiteko bidea finkatzeko ildoak proposatzen dira.</p>

FITXA SINOPTIKOA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
Egitura	<p>Informazioaren azterketa: txostenean, Euskadiko egungo etnografia-ondarearen errealitatea aztertzen da, eta inbentarioa egiteko jarraibideak proposatzea da azterketaren helburua. Azterketaren abiapuntua Kulturaren Euskara Planaren aurretiazko txostenak eta gai horri buruz Euskadin lantzen diren bi ikerketa-korranteak dira. Horiez gain, autonomia-erkidegoen zuzenbide-esparru berriak ere aztertzen ditu; ondare horren dokumentazioa, babeseta eta hedapena, eta eraginkortasun praktikoa bermatzea dira esparru horien helburuak. Ildo horretan, bost autonomia-erkidegoen kasuak aurkezten dira: Kataluniarena, Valentziarena, Asturiasena, Errioxarena eta Kantabriarena; izan ere, bost kasu horiek erreferentzia-eredutzat har daitezke.</p>
	<p>Ondorio nagusiak: 16 proposamen aurkezten dira. Inbentarioak egiteko erabiltzen diren bi metodologiei, ondare higiezinari, higigarriari eta materiagabeari, eta tradizioaren eramailei buruzkoak dira proposamen horiek.</p> <p>Txostenean, gainera, Euskal Kultura Ondareari buruzko egungo Legeak etnografia-ondarea eraginkortasunez babesteko zer hutsune dituen azpimarratzen da; izan ere, lege horretan ez da aurreikusten etnografia-ondarearen aholku-batzorderik sortzea, ezta ondare materiagabea babesteko irudi juridikorik sortzea ere. Erabiltzen den ondasun bat (etnografia-ondarea, alegia) mantentzeko laguntzek dakartzaten zailtasunak eta kontraesanak ere aztertzen ditu, baita etnografia-museoen askotariko egoera ere.</p> <p>Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenetan, proposamen hauek jasotzen dira: Euskal Etnografia Zentroa sortzea; Behatokia sortzea, eredu katalanari jarraiki; aurretiazko inbentarioa egitea; eta Euskal Antropologia Museoa sortzea.</p> <p>Azkenik, azpimarratzen da landa-ondarean oinarritutako garapen sozioekonomikoaren ereduak aztertze beharra dagoela egun, eta Euskadiko Museoei buruzko Legean balio etnografikoa duten espazioei egiten zaien erreferentzia jasotzen da.</p>
Baliabide bibliografikoak/webgrafikoak	Azterketaren azken kapituluan, bibliografia-iturriei eta azterketa-erreferentziei buruzko fitxa teknikoak jasotzen dira.
EMAITZEN ZABALKUNDEA	
Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/prozesua	Dokumentu osoa Kulturaren Euskal Behatokiaren bulegoetan kontsulta daiteke, Lakuan, edo helbide elektronikoa honetan eskatu: kulturabehatokia@ej-gv.es

I. HELBURUAK

Azterketa honen helburu nagusia da erreferenteak ematea etnografia-ondarearen inbentarioa prestatzeko urratsak bideratzeko. Hala nola:

- Ardurak banatzea administrazioen artean.
- Lan horiez arduratuko diren erakundeen edota langileen beharra, eta hori guztia administrazioaren organigrama txertatzeko beharra.
- Kanpo-eragileekiko harremanak (pertsonak edota erakundeak), laguntza teknikoari dagokionez.
- Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen ahalmenak berrikustea, etnografia-ondarea babesteari dagokionean.
- Inbentarioa egiteko lehentasunezko jarduera-ildoak, sailkapen irizpideen (ondare higigarriak, higiezinak, materiagabeak eta tradizioaren eramaileak), gaien (lanbideak, errituak, folklorea, jainkozaletasuna, ekoizpen-jarduerak, espazioa hartzea, euskalkiak eta hizkerak, etab.) edo lurraldeen (probintziak, eskualdeak; edo landa-eremua, hirigunea eta kostaldea) arabera.

Azterketa honen helburu nagusia da erreferenteak ematea etnografia-ondarearen inbentarioa prestatzeko urratsak bideratzeko. Hala nola: ardurak banatzea administrazioen artean, lan horiez arduratuko diren erakundeen edota langileen beharra, kanpo-eragileekiko harremanak, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen ahalmenak berrikustea, inbentarioa egiteko lehentasunezko jarduera-ildoak

II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Txostenak lau kapitulu handi ditu, baita fitxa teknikoa eta eranskina ere.

Lehen kapitulua ikerketaren abiapuntua da. Atal horretan, definizioa eta kontzeptua berrikusten dira, ikerketen egoeraren berri ematen da, etnografia-ondarea testuinguru batean kokatzen da, eta inbentarioen eta tradizioaren eramaileen egoeraren berri ematen da.

Bigarren kapituluan, zuzenbide-esparrua aztertzen da. Gai hauek aztertzen dira, besteak beste: etnografiaren esparrua kultura-ondarearen barruan, babesteko ardurak, museoekiko harremana, aholku-batzordeak, babes-mailak eta babes hedakorra/babes trinkoa dikotomia.

Hirugarren kapituluan, autonomia-erkidego hauetako erreferentzia-ereduak aztertzen dira: Kataluniakoa, Valentziakoa, Asturiaskoa, Errioxakoa eta Kantabriakoa.

Laugarren kapituluan azterketaren proposamenak aurkezten dira, laburtuta eta bidea finkatzeko ildoak emanaz.

Metodologiari dagokionez, Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenak izan dira azterketaren abiapuntua, baita autonomia-erkidegoetako zuzenbide-esparru berrien azterketak ere; zuzenbide-esparru horien helburua da ondare horren dokumentazioa, babesa eta hedapena, eta eraginkortasun praktikoa bermatzea. Bi autonomia-erkidego aukeratu dira, etnografia-ondarearen inbentarioa egiteko lanari aurrea hartzeko bi modu; bi adibide horiek erreferentzia baliagarri izan daitezkeen beste kasu batzuen bidez osatzen dira. Azken batean, **dokumentuen eta kasuen** azterketan oinarritutako metodologia da. Horretarako, erakunde hauekin izan ditugu idatzizko edota ahozko harremanak:

- Nafarroako soinuen, ikus-entzunezkoen eta testuen artxiboa
- Kataluniako Etnologia Zentroa
- Valentziako Historiaurrearen eta Kulturen Museoaren Etnologia Departamentua
- Bartzelonako Diputazioaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Nafarroako *Julio Caro Baroja* Etnologia Museoa
- Asturiasko Herriaren Museoa
- Valentziako Generalitat-aren Kultura Departamentuaren Etnologia Zerbitzua

Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenak izan dira azterketaren abiapuntua, baita autonomia-erkidegoetako zuzenbide-esparru berrien azterketak ere; zuzenbide-esparru horien helburua da ondare horren dokumentazioa, babesa eta hedapena, eta eraginkortasun praktikoa bermatzea

Horretaz gain, Institut Català d'Antropologia erakundeak Bartzelonan antolatutako jardunaldi batzuetan –*Etnologiari eta gizarteari buruzko museoak eztabaidagai*– izan ginen 2005eko urtarrilean. Jardunaldien muina "museologia berria" esaten zaien ereduak izan ziren; eredu horiek Europako eta Ipar Amerikako ohiko antropologia-museoen krisiari erantzuteko sortu ziren. Azkenik, Kataluniako etorkizuneko etnologia-museoaren eredu izango dena eztabaidatu zen.

Azken batean, dokumentuen eta kasuen azterketan oinarritutako metodologia da

III. EDUKI NAGUSIAK

1. ABIAPUNTUA

Txosten honen abiapuntua Kulturaren Euskal Plana egin aurretik aditu-batzordeak egindako txostenetik ateratako etnografia-ondarearen definizioa da¹. Etnografia-ondarea kontzeptua erabiltzen da, etnologia-ondarea kontzeptua erabili beharrean; izan ere, tradizio handiagoa du lehen kontzeptu horrek gure herrialdean.

Etnografia-azterketaren oinarria errealitate bizia da, etengabe aldatzen ari den errealitatea; horrenbestez, esan daiteke inoiz ez dela amaitzen. Horregatik izan behar dira kontuan, azterketetarako, Euskadiko bi ikerketa-metodo handi:

- **Etnografia-alderdia:** lurralde bakoitzeko Etniker taldeek lantzen dute hobekien etnografia-ikerketa, espazioari dagokionez. Barandiaranek bere galdera-sortan diseinatu zuen metodoari jarraiki, herrialde osoaren ikuspegi orokorra lortzea da helburua. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienak dira etnografia-ikerketaren helburu; hala ere, ikerketa horietan egiaztatzen denez, hirietako biztanleak ez daude, proportzioan, landako biztanleak bezain ordezkatuta.
- **Antropologia-alderdia:** antropologia-ikerketek nortasun tradizionala aztertzen dute; hiru jarduera-ildo erabiltzen dituzte horretarako: generoa, immigrazioa eta folklore-ekintzak.

Ondare bati eta haren inguruneari dagokienez, arkitektura-irizpidea abiapuntu ona izaten da ondare higiezi-
nen etnografia-inbentarioa egiteko orduan, betiere kontuan izaten bada ondare horiek ez dutela arkitektura-balioa soilik; izan ere, etnografia-balioa duen jarduera baten adibidea ere badira. Askotan, etnografia-balioa elementu-multzo batean egoten da, neurri handi batean, eta, elementu horiek bereiziz gero, agian ez lukete zentzurik izango. Beraz, etnografia-irizpide bat erabiltzen denean, babestutako elementua kontuan izateaz gain, elementu hori bere testuinguruan kokatu behar da. Izan ere, multzoa paisaia osoa izan daiteke.

1. Ondarea ez da etnografiarako interesgarriak diren gertaera eta subjektu guztietara hedatzen. Horrek, ondare den heinean, babestea zilegi bihurtzen duen historikotasunaren/iraunkortasunaren balio erantsia izan behar du (balioen alde egiteko). Hala ere, ez da iraganaren sinonimoa, bizirik dagoen errealitatearen bidez iragana txertatzen duen heinean.

Materiari edo euskarriari dagokienez, honela banatu daitezke kultura-adierazpen horiek: materialak eta materiagabeak; edo ondare higiezina, higigarria eta materiagabea.

Etnografia-azterketaren oinarria errealitate bizia da, etengabe aldatzen ari den errealitatea; horrenbestez, esan daiteke inoiz ez dela amaitzen

Zenbat eta handiagoak izan kontzeptua eta espazioa, orduan eta konplexuagoa da definitzea zer sartzen den eta zer ez. Bi arrazoiengatik gertatzen da hori:

- Espazioa eta kontzeptua zenbat eta handiagoak, orduan eta zailagoa da praktikoki eta juridikoki mugatzea.
- Printzipio-arrazoiengatik: zergatik izendatzen da leku bat interes etnografikoko gune, eta ez antzeko ezaugarriak dituen beste espazio bat?

Ondare heterogeneo hori babesteko garaian, elementuak edo "interesguneak" errentagarritasun-irizpideen arabera lehenesteko arriskua izaten da; horrek kalte egiten die ikuspegi "zientifikotik" agian baliotsuagoak diren baina "salerosketaren" ikuspegitik hain baliotsuak ez diren elementuei. "Ustiaketaren" eta "kontserbazioaren" arteko oreka bilatu behar da. Horrenbestez, inbentario bat egiteko garaian arkeologikoa zer den erabakitzeak ia zailantzarik sortzen ez den arren, etnografia-ondarearen kasuan zailagoa da hori erabakitzea; izan ere, jada aipatu den moduan, errealitate oso batetik etnografikoki esanguratsua den hori aukeratu behar da. Hiriko etnografia-ondarearen kasuan, are zailagoa da hori.

1.1. Etnografia-ondarearen inbentarioen egoera EAEn

Ondare higiezina: 14.000 elementutik gora daude EAEko ondare-multzoa jasotzen duen egungo Kultura Ondare Higiezinaren Parkearen zerrendan; horietatik 8.600 inguru, arkitektura-ondareak dira (4.600 elementuk babes orokorra dute; 4.000 elementu udalerrien esparrukoak dira). Gainerakoak arkeologikoak dira.

Ondare higigarria: museoek egiten dute elementu horien inbentarioa, eta beraiek babesten dituzte ondare higigarriak. Bizkaian, Bilboko Euskal Museoa da erreferentzia. Araban, tokiko museoak arduratzen dira zeregin horretaz. Gipuzkoan, bilduma garrantzitsua du San Telmo Museoa. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak etnografia-ondare higikorrez jabetzeko politika du gutxienez duela bi hamarkadatik, eta bilduma garrantzitsu batzuk osatu ditu; esaterako, eltzegintzari edo errementaritzari buruzkoa. Horretaz gain, itsasoko ondarea biltzen ari da Untzi Museoaren bidez.

Ondare materiagabea: ondare materiagabea ez da modu sistematikoan bildu, babes-erregimenen bat ezartzeko; hala ere, esperientzia interesgarriak egin dira. Adibidez, *Euskal Herriko festa eta dantza tradizionalen egutegia*, *Baskoniako atlas etnografikoa* eta *Herri musikaren txokoa* (azken hori euskal musika-ondare tradizionalaren arloan).

Hizkuntza-ondarea: Aranzadi Zientzi Elkarteak *Euskal Herriko atlas etnolinguistikoa* prestatu eta argitaratu zuen. Labayru ikastegiak *Bizkaiera bilduma* prestatu zuen. Egun, gainera, bi proiektu daude abian ahozko ondare

Ondare heterogeneo hori babesteko garaian, elementuak edo "interesguneak" errentagarritasun-irizpideen arabera lehenesteko arriskua izaten da; horrek kalte egiten die ikuspegi "zientifikotik" agian baliotsuagoak diren baina "salerosketaren" ikuspegitik hain baliotsuak ez diren elementuei

interesgarria jasotzeko eta hedatzeko: *Eibartarren ahotan eta Nafarroako ahozko ondarea osatzen duten soinuen, ikus-entzunezkoen eta testuen artxiboa.*

1.2. Tradizioaren eramaileak

Deigarria da **tradizioaren eramaileak**² adierazpena edo kontzeptu horri buruzko antzeko terminorik ez egotea autonomia-erkidegoetako legedietan nahiz eta batzuek paragrafo asko eskaini dizkieten etnografia-ondareari. Eta deigarria da, hain zuzen, azken batean horiek direlako ondare materiagabearen euskarria, euskarri aberatsena eta ahulena. Hori nabarmena da lanbide eta jarduera tradizionalen kasuan; izan ere, ekonomia-funtzioa galtzen dutenean, desagertu egiten dira. Komunitateko errituak, ordea, batzuk erabili ere egiten ez ziren arren, berreskuratzen ari dira, eta eremu hiritarragoetara hedatzen; esaterako, Olentzero eta Santa Ageda.

Aranzadi Zientzi Elkarteak landako, arrantzako eta hiriko 240 lanbide aipatzen ditu, lanbide tradizionalen egungo egoerari buruzko txosten batean; lanbide horietatik erdiak XX. mendearen bigarren erdialdean desagertu ziren, edo desagertzeaz daude. Kasu askotan, zaila da lanbide horiei buruzko informazioa zuzeneko protagonis-tengandik jasotzea, haien adina dela eta; prozesu hori, gainera, zaildu egingo da denborak aurrera egin ahala.

Era berean, lanbide horietan erabilitako espazioak, eraikinak, ibilgailuak eta tresnak ere desagertzen ari dira, eta ez dira behar bezala dokumentatu kasu guztietan. Ikus-entzunezko grabazioak egiteko gaitasun teknikoa ia guztion eskuetan dagoen garaiotan, interesgarria da bitarteko horiek erabiltzea betirako gal daitezkeen testigantzak jasotzeko.

2. ZUZENBIDE-ESPARRUAREN AZTERKETA

2.1. Etnografia-ondarea kultura-ondarearen barruan

Autonomia-erkidegoetako kultura-ondareari buruzko legeak berrikustea lagungarria izan daiteke etnografia-ondarearen inbentarioa prestatzeko. Lege guztien oinarria bera da: 1985eko Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legea.

Espainiako Legearen abiapuntua bost sailkapen-irizpide hauek dira: *monumentua, lorategi historikoa, multzo historikoa, toki historikoa eta arkeologia-eremua*. Zenbait autonomia-erkidegok, ordea, sailkapen-irizpide zabalagoak eranstea erabaki dute; esaterako: *paleontologia-eremua eta interes etnografikoko tokia*.

2. Ikerketak Aranzadi Zientzi Elkartearen Etnografia Departamentuak egindako lanbide eta teknika tradizionalei buruzko eranskina du; ikerketa horretan, nabarmentzen da tradizioaren eroaleak ahulagoak direla eta galtzeko arriskuan daudela.

Deigarria da tradizioaren eramaileak adierazpena edo kontzeptu horri buruzko antzeko terminorik ez egotea autonomia-erkidegoetako legedietan nahiz eta batzuek paragrafo asko eskaini dizkieten etnografia-ondareari

Etnografia-ondarearen ikuspegi berri bat ari da azaleratzen: batetik, onartzen du ondare hori badela eta komunitate-balioa duela; bestetik, hainbeste kategoria egoteak adierazten du oraindik ere ez dagoela behar bezala definituta juridikoki, eta, horrenbestez, irudikapen praktikoa ezezaguna dela oraindik.

Gaur egun, duela zenbait hamarkada baino zabalagoak dira kultura kontzeptua nahiz kulturaren definizioa. Gainera, kultura-ondarea izendapena ohikoa da, jada, autonomia-erkidegoetako legeetan; adibidez, 1990eko Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean bertan.

Elementu berri bati ere erreparatu behar zaio: ondare horren eta industriaurreko, protoindustriako edo industriako bertako ondarearen (jada produktiboa ez denaren) arteko loturari. Kontzeptu hori errepikatu egiten da legeetan; esaterako, Madrilgoan edo Asturiaskoan.

Illoak antzekoak dira autonomia-erkidego guztietan, izenak eta ezaugarriak aldatu egiten diren arren. Kantabriak, adibidez, *kultura-tokia*, *etnografia-tokia* eta *kultura-paisaia* terminoak erabiltzen ditu; *multzo historikoa* terminoa baino eremu zabalagoak hartu nahi ditu, eta etnografia-balio nabarmena dute toki horiek. Aragoik *kultura-parkea* kontzeptuaren alde egin du. Askotariko espazioak hartzen dituen izendapen horren barruan, ondarea berreskuratzeko programak ari dira gauzatzen; programa horiek helburu sozioekonomiko nabarmena dute, eta turismoa erakartzeko guneak finkatzen dituzte herri bakoitzean.

Kanarietako 1999ko legean, etnografia-parkeak sortzea aurreikusten da. Izendapenei dagokienez, bada alderdi deigarri bat Kanarien kasuan: legeak ondare historikoa soilik jasotzen du izendapenean, eta hala izena du dago-kion departamentuak ere; babes-kategoriak, berriz, *multzo historikoa* izena jasotzen du. Oso adierazgarria da Kanarietan etnografia-ondareari ematen zaion balioa. Izan ere, muturreko adibide bat jartzearren, UNESCOri Gomerako txistua Gizon-emakume Guztien Ondare izendatzeko eskaera egiteraino ere irits daiteke autonomia-erkidego hori, Las Palmas uharterko ahozko ondarea biltzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko planaren emaitza moduan (txistua eskoletan irakasten da).

Madrilgo Autonomia Erkidegoko legean, Espainiako legearen bost sailkapenak jasotzen dira, baina hedatu egiten dira, *paleontologia-eremua* eta *interes etnografikoko* tokia erantsiz. Horretaz gain, beste kontzeptu bat erantsen du ondare materiagabearen kasurako, eta legeak aurreko zazpien maila berekotzat hartzen du: *kultura-gertaera*³, hain zuzen. Beste batzuek (Kantabriak, esaterako) beste kategoria bat jasotzen dute: *kultura-*

3. Interes etnografikoko tokien babes bera izango dute Madrilgo Autonomia Erkidegoko etnologia-ondarea osatzen duten eta elementu bereziak dituzten jarduera tradizionalak nahiz berrogeita hamar urtetik gorako antzinatasuna duten toponimo errotuek, eta Kultura Gertaera izendapenarekin babestuko dira.

Etnografia-ondarearen ikuspegi berri bat ari da azaleratzen: batetik, onartzen du ondare hori badela eta komunitate-balioa duela; bestetik, hainbeste kategoria egoteak adierazten du oraindik ere ez dagoela behar bezala definituta juridikoki, eta, horrenbestez, irudikapen praktikoa ezezaguna dela oraindik

bidea edo *historia-bidea* izenekoa (Errioxa, Asturias). Kategoria hori erromatarren galtzada bati, Done Jakue Bideari nahiz transhumantzia-bideei ezar dakieke.

2.2. Ondarea babesteko ardura: ohar bat

Beste ondare batzuetarako erabili den esperientzia praktikoak azaltzen du jabeei ez zaiela erakargarria egiten beren jabetzaren bat kultura-ondare izendatzeko ideia; areago, zama dela sentitzen dute. Azken batean, uste dute inbentarioetan sartzeak etekinak baino zor handiagoak ekar ditzakeela.

2.3. Etnografia-ondarea eta museoak

Legeetan, etnografia-ondareak babesteaz arduratuko diren museoak eta museo-sareak aurreikusten dira. Zenbait eredu daude:

- **Museo berri bat** sortzea aurreikusten duena; Kataluniaren edo Madrilen kasuan, esaterako.
- **Lurraldeko zenbait museo txikiago** sortzea aurreikusten duena; Kantabriaren kasuan, esaterako (eta antzera Errioxaren kasuan).
- **Museo-sistema edo -sarea** proposatzen duena; Valentziako, Asturiasko eta Extremadurako legeetan, esaterako.

Kulturaren Euskal Planerako txostenean, gaikako museoek euskal sarea proposatzen da; ez dira lurraldeka antolatuko, espazio hain txikian errepikakorrak izango bailirateke. Europa eta Ipar Amerika osoan, etnografia-museoak krisian daude, eta haien zereginak eta gizarte-ordezkaritza berriro planteatzen ari dira. Euskal Herrian, ordea, garai berean, Antropologiaren Euskal Museoa behar dela proposatzen da.

2.4. Aholku-batzordeak

Lege guztietan, aholku-batzordeak sortzea aurreikusten da, etnografia-ondarearen ikerketa, kontserbazioa eta hedapena bermatzeko. Autonomia-erkidego bakoitzak aholku-batzorde bakarra izatea hausnartu du; hala ere, zenbaitetan, berriazko batzordeak aurreikusten dira, etnografiarena, besteak beste (Andaluzia, Extremadura, Kantabria).

Aholku-batzordeez gain, beste irudi aholku-emaile bat ere jasotzen da Errioxako legean: "Errioxako kultura-, historia- eta arte-ondarearen defendatzailea".

Katalunia da, berriro ere, beste bide bati heldu diona. Zortzi laguneko batzordea osatu du: lau akademia-esparrukoak dira, eta beste lau, lurralde-esparrukoak ("antena" modukoak, behatokian bezala), eta lehentasuna zer eskualderi edo zer gairi eman behar zaien proposatzen dute.

Lege guztietan, aholku-batzordeak sortzea aurreikusten da, etnografia-ondarearen ikerketa, kontserbazioa eta hedapena bermatzeko

2.5. Etnografia-ondarearen babes-mailak

Xedapen teorikoek ez dute ukatzen etnografia-ondarea babesaren irudi juridikoetan sailkatzeko aukera, baina oso elementu gutxik lortzen du gorengo mailara, lege gehienetan Interes Kultureko Ondare izendatzen den mailara, iristea, *interes etnografikoko tokia* kategoriaz zehazten duten legeetan barne.

Ondareari buruzko Kataluniako legeak ere aurreikusten du interes etnologikoko tokia irudia. Lege hori 1993koa da, eta, harrezkero, ez da kategoriaz horretako izendapenik egin. Une honetan, Baix Empordá eskualdean kokatutako eremu bakarrari buruzko izendapena ari dira izapidetzen; masiak eta mahastiak daude han.

Gaztela-Mantxan katalogatutako ondare higiezinako 613 elementuetatik erdiak baino gehiago erlijio-arkitekturek dira. Gaztela eta Leon historizismoaren aldekoa da. 2002ko legeak, teoriarik behintzat, etnologia-multzozko kategoriaz onartzeaz eta ondare materiala eta materiagabea babesteaz hitz egiten duen arren, oso generikoa da. Izan ere, lurralde horretan izendatutako Interes Kultureko Ondareen artean, ez dago gaztelua, eliza, komentua, muga-gurutzea edo harrizko zutabea ez den elementurik.

Valentziak elementuen inbentario luzeegia du, eta elementu horietatik 240k jasotzen du babes-mailarik altuena.

Etnografia-ondareak agerpen murriz hori zergatik duen ulertzeko, kontuan izan behar da definiziotik beretik dela zaila etnografia-balioa duten elementuei babes juridiko altuena ematea: etnografia-ondarearen ezaugarria duen adierazgarritasuna bada, zaila da originaltasun-, arrarotasun- edo ezohikotasun-irizpideak ezartzea elementu jakin bati. Hala ere, errazagoa da bigarren babes-maila ematea.

Ez da ahaztu behar, gainera, *interes etnografikoko tokia* edo antzeko kategoriaz zehazten duten legeak berriak direla, 1988. urtetik aurrerakoak, eta txostenei hasiera ematea eta horiek onartzea eginkizun luzea eta neketsua dela; areago, kategoriaz lauso horren atzean espazio zabalak eta heterogeneoak sartu nahi direnean. Ildo horretan, Balear Uharteek 2003an ekin zioten inbentarioa egiteari, Kataluniako ildoari jarraiki, eta, beraz, denbora behar da emaitza zehatzak ikusteko. Beste horrenbeste gertatzen da Kantabriaren, Errioxaren edo Asturiasen kasuan ere, 2005ean ekin baitzieten inbentarioak egiteari. Inbentario horietatik, hasiera emateko txostenak atzerako dira, eta, dagokienean, izendatzeko txostenak ere bai.

Dirudenez, oraindik ere erregistroaren kontzeptu "klasikoa" nagusituko dela erakusten dute ildo horretan aurreratuen dauden inbentarioren esperientziak (Andaluziakoa eta Valentziakoa): "banan-banako" ondare higiezinak eta erraz identifikatzen direnak; museo batean jasotako ondare higigarriak, informatizatutako fitxa homologatuen bildumetan sartuta eta sarean jarrita daudenak; ondare materiagaberik eza inbentario horietan.

Xedapen teorikoek ez dute ukatzen etnografia-ondarea babesaren irudi juridikoetan sailkatzeko aukera, baina oso elementu gutxik lortzen du gorengo mailara iristea

2.6. Babes hedakorra/babes trinkoa dikotomia

Legeek babes hedakorreko eredura jotzen dute, ez baitute ezer baztertzen, hasiera batean, ondarearen definizioetan; areago, etnografiarenean. Baina printzipio horren ezarpen praktikoak babes trinkora jotzen du: etnografia-ondareari gehieneko babes juridikoaren izendapena ematea behingo kontua da ia. Bigarren babes-maila ere oso gutxitan ezartzen da, eta lege ia guztietan jasotzen duten hirugarren mailako babes udalerrien esku geratzen da; horrenbestez, ezarpen praktikoak oso heterogeneoa da, eta, ia beti, ondare higiezinera mugatzen da.

Euskadiren kasuan, foru-aldundiek ez dute jarri ondare sailkatuen eta inbentariatutako ondareen jabeak babesteko moduko laguntza orokorreko programarik. Batez ere, titulartasun publikoko ondareak edo Eliza Katolikoarenak aukeratu dituzte.

Ondare higigarria, berriz, museoen bildumetara mugatzen da ia; horiek nahikotzat eta adierazgarritzat hartzen badira, behar adinako babes-maila ezarri behar zaie.

Ondare materiagabea geratzen da, praktikan, babesik gabe; batez ere, ez delako zehazten nor arduratuko den ondare hori dokumentatzeaz, kontserbatzeaz eta hedatzeaz: museoak, unibertsitateak, ikerketa-zentroak edo, zuzenean, administrazioa bera.

Laburbilduz, babes hedakorra da teorian, baina trinkoa praktikan, eta, ondare materiagabearen kasuan, ia hutsala. Ondare materialari dagokionez, ondare hori kontserbatzea onartzeak dakartzan zama eta ardura dira dikotomia horren arrazoi nagusiak. Fenomeno orokorra da; izan ere, zenbat eta ondare gehiago izan sailkatuta, orduan eta handiagoa izan beharko du ondare hori kontserbatzeko aurrekontuak.

Atala honako gai hauei buruzko zenbait gogoetak ixten dute: gizarte-interesik ezak eragindako ondare materiagabearen babesik eza, definitzeko zailtasuna, jasotzeko eta kudeatzeko bitarteko teknikorik eza. Azken batean, azken urteotan asko aurreratu den arren, konpontzeke dago ondare hori babesteko neurriak ezartzeari buruzko gaia.

3. ERREFERENTZIA-EREDUAK

3.1. Katalunia: Etnologia Ondarearen Zentroa

Kulturaren Euskal Planean, ezinbestekotzat jotzen da Euskadiko Etnografia Ondarearen Inbentarioa egitea. Inbentario hori sortzea eta kudeatzea Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta, zehazki, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, eta Euskadiko Etnografia Ondarearen Zentroa sortuko du horretarako.

Legeek babes hedakorreko eredura jotzen dute, ez baitute ezer baztertzen, hasiera batean, ondarearen definizioetan; areago, etnografiarenean. Baina printzipio horren ezarpen praktikoak babes trinkora jotzen du: etnografia-ondareari gehieneko babes juridikoaren izendapena ematea behingo kontua da ia

Kataluniako ereduari jarraiki, hauek izango lirateke zentroaren zereginak: Euskadiko etnografia-ondarea inbentariatzea eta katalogatzea, material berriez jabetzea, emaitzak zabaltzea eta ikerketa sustatzea, laguntzen, programen eta abarren bidez. Katalunian, beste zuzendaritza bat sortu zen Kultura Sailaren barruan, Kataluniako Herri Kultura eta Kultura Tradizionala Sustatzeko Zentroa, hain zuzen.

Centre de Patrimoni Etnologic de Catalunya zentroaren antolaketa eta eginkizunak

Kataluniako Etnologia Ondarea Ikertzeko, Kontserbatzeko eta Babesteko Arloan, 10 langile daude, eta hauek dira langile horien eginkizunak:

- a. Zuzenean edo beste departamentu, unibertsitate, museo, erakunde eta aditu-talde batzuekin hitzartuta sustatutako ikerketa-jarduerak koordinatzea.
- b. Dokumentu- eta material-funtsak aurkitzea, horietaz jabetzea, horiek katalogatzea eta kontserbatzea.
- c. Kataluniako etnologia-ondarearen inbentarioa eta katalogazioa zuzentzea.
- d. Ikerketa sustatzea.
- e. Kataluniako kultura tradizionala eta herri-kultura hedatzea.
- f. Festa tradizionalak interes nazionaleko festatzat izendatzeko txostenak bideratzea.

Etnologia Ondarearen Inbentarioa

Zentroaren zutabeetako batek, etnologia-ondarearen inbentarioak, ez du lehentasunezko hartzen "klasi-koa"⁴ esaten zaion inbentarioa osatzea. Ikerketa-lan hori zentrotik antolatzen da, baina kanpo-eragileen lankidetzaz. Kanpo-lanak ez dira kontratu bidez kudeatzen, baizik eta deialdi publikoetan beka edo diru-laguntzak emanaz. 2005ean, 60.000 euro bideratu ziren beketara eta diru-laguntzetara. Pertsona edo erakunde batek, lan jakin batengatik, 3.000 eta 6.000 euro artean jaso ditzake beken bidez; horrenbestez, 10 eta 20 proiektu artean laguntzen dira diruz urtean (3 urtera arte luza daitezke).

Etnologia Ondarearen Batzordeak erabakitzen du zer ikerketari eman beka edo diru-laguntzak. Batzorde horrek zaintzen du gutxieneko zehaztasun zientifikoa bermatzen dela, baita egin beharreko lanari aurreikusten zaion interesa ere. Ikerketan, bi irizpide zabal erabiliko dira: lurraldea eta gaia.

4. Etnologia-ondarearen inbentarioa ikerketa-proiektu bat da, inbentarioaren kontzeptua bera izan litekeenetik haratago doana, ondareari buruzko datuak eta objektuak biltzea baino areago doan heinean. Ondare horren ezagutzan eta ikerketan jarri nahi da arreta, landa-lana eginez eta dokumentuak eta elkarrizketak aztertuz; azken batean, guztiak ikerketan bertan oinarritzea da helburua.

Kulturaren Euskal Planean, ezinbestekotzat jotzen da Euskadiko Etnografia Ondarearen Inbentarioa egitea. Inbentario hori sortzea eta kudeatzea Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta, zehazki, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, eta Euskadiko Etnografia Ondarearen Zentroa sortuko du horretarako

Zenbait elkartetako kideak ez dira profesionalak, baina eremuaren ezagutzak orekatu egiten du hori; askotan, gainera, zubi-lana egiten du ikertuko den errealitatearen eta unibertsitatetik datozen eta landa-azterketa egiten duten antropologiako profesionalen artean. Bi ikerketa-modu horien arteko desorekak ez ditu, horrenbestez, gehiagi kezkatzen zentroko arduradunak; izan ere, batzordeak bermatzen du lanetarako eskatutako gutxieneko kalitatea.

Etnologia Ikerketen Behatokia

Ikerketa-ildoekin harreman estua du Etnologia Ikerketen Behatokiak. IPEC (Kataluniako Etnologia Ondarearen Inbentarioa) sareko sei "antenatan" edo zentrotan oinarritzen da, eta Pirinioen, Ebro ibaiaren eta itsasoaren arteko bi ikerketa-institutuk eta eskualdeko lau museok osatzen dute (32.000 km²-ko lurraldea).

Etengabe eguneratutako ikerketa-ikuspegia ematen du behatokiak, eta, horri esker, Katalunian etnologia-arloan aurrera eramaten den ororen ikuspegia lor daiteke, etengabe eguneratua gainera, baita munduan arlo horren inguruan egiten diren jarduera interesgarriena ere.

Azken batean, inbentarioari buruzko printzipioen adierazpena ohikoa den erregistratze soiletik aldentzen dela dirudien arren, praktikan, urteko dokumentazio-programen bidez, mota horretako inbentarioak egiten dira museo-bildumekin, elkarteen artxiboekin, tokiko inbentarioekin eta abarrekin.

Izan ere, zentroko lan-antolaketa kontuan izanik (ikerketa-lana kanpo-erakundeei eskuordetzen die, ikerketa etnomusikologikoak izan ezik), ezinezkoa izango litzateke Valentziak eta Andaluziak duten moduko inbentarioa egitea, ez baitu bere langilerik lurraldean banaturik, eta antenen geografia-banaketak ere ez bailioke aukerarik emango inbentario osatua eta orekatua egiteko.

IPECetik egiten den azterketaren arabera, tradizionaltzat hartzen diren zenbait jardueraren, ofizioen, habitaten eta ohituraren zerrendak ez dira gai herritar gehienen interesa pizteko, ez bada lurralde jakin batekin duten loturagatik; lurralde horiek, gainera, atzeraka doaz, eskuarki, ekonomiari eta demografiari dagokienez. Pirinioek, nortasun-faktore gisa, tokiko biztanleria batu dezakete, eta kirolari eta kulturari lotutako turismoa gero eta gehiago eskatzen duten hiritarrak erakarri. Eta mundu tradizional osotik, nortasun-elementuak, festak eta gastronomia dira, nagusiki, zabalpen handiena dutenak, bai bertakoentzat, bai arrotzentzat. Horren adibide dira *les falles* izeneko festak: azken 30 urteetan, ia desagertuta zeuden, baina hamar urtean baino gutxiagoan, berres-

Zenbait elkartetako kideak ez dira profesionalak, baina eremuaren ezagutzak orekatu egiten du hori; askotan, gainera, zubi-lana egiten du ikertuko den errealitatearen eta unibertsitatetik datozen eta landa-azterketa egiten duten antropologiako profesionalen artean

kuratu egin dira festa horiek ospatzen zituzten leku guztietan. Horrek, gainera, turistak eta atzerrira joandakoak erakarri ditu, baita hirian jaiotako belaunaldietako kideak ere (berriro lotu ditu beren jatorrietara). Katalunian, mota horretako ikerketa aplikatua sustatzea erabaki da. Ez da, ordea, Kataluniako kasua soilik. Beste autonomia-erki-dego batzuen abiapuntua ere landako etnografia-ondarea garapenaren eragile moduan sustatzea da.

Etnologia Ondarearen Artxiboa

Inbentarioa erregistro soiltzat hartzeagatik baztertzea zehaztu daitekeen zerbait da. Etnologia Ondarearen Artxiboa inbentarioa da, berez, antolatua eta jendearen eskura jarria; ehunka milaka erregistro jasotzen ditu zenbait euskarritan.

Berezko funtsetatik abiatzen da: aurreko hamarkadetan jaso ziren batzuk, eta bilduma pribatuen emarien bidez (liburutegiak, dokumentuak, erreferentziak, soinu-erregistroak) lortu dira beste batzuk. Horietako batzuk funtsezkoak izan dira Kataluniako folklorea aztertzeko; esaterako, Joan Amadesena, 200.000 dokumentu baino gehiagokoa.

Dokumentu-oinarri horretatik abiatzeak azaltzen du zergatik ez duen lehentasunik ondare materialen inbentarioa egiteak. Aipatu behar da, halaber, ondare higigarrien eta higiezinen inbentarioa egitea diputazioei eta udalei dagokiela.

Azken batean, kontua ez da inbentarioaren ikuskera klasikoa baztertzen dela, baizik eta zentro horrek lehentasuna ematen diola ondare materiagabeari, materialaren aurretik. Batetik, mundu tradizionala azkar ari da aldatzen (zenbait eskualdetan, duela bi mende hasi zen aldatzen); bestetik, immigrazio-prozesua goraka doa; horrek etnografia-ikerketen zentzua zalantzan jartzera eramán ditu, zentzua ez badago nortasunari lotuta. Eta horregatik nabarmendu dituzte hizkuntza, musika eta festak beren izaeraren ezaugarritzat.

3.2. Valentzia: Ondarearen Inbentario Orokorra

Valentziako legean, Inbentario Orokorra egitea aurreikusten da, eta inbentario horrek barruan hartzen du etnologia-inbentarioa. Generalitat-ak inbentarioa egiten duten bi etnologo ditu. Ondoren, Inbentario Orokorra osatuko luketen elementuak aukeratu beharko liriateke, eta batzuek beste batzuek baino babes-maila handiagoa izango dute. Elementuak erregistratu ahala, Interneten jartzen dituzte ikusgai. Dagoeneko, ondare higigarriaren 10.000 fitxa eta ondare higiezinaren 7.000 fitxa baino gehiago egin dituzte; ahalegin hori Andaluziak eginikoarekin soilik erka daiteke. Datuak deigarriak diren arren, kontuan izan behar da ondare higiezinaren herena soilik

Generalitat-ak inbentarioa egiten duten bi etnologo ditu. Ondoren, Inbentario Orokorra osatuko luketen elementuak aukeratu beharko liriateke, eta batzuek beste batzuek baino babes-maila handiagoa izango dute

inbentariatu dela, gutxi gorabehera, giza baliabiderik ez dutelako. Inbentarioa egiteko, eskualdearen edo gaiaren irizpideari jarraitzen diote. Orain artean, 32 eskualdetatik 10 inbentariatu dira.

Ondare higigarria

Ondare higigarria museoen sarearen bildumaren elementuek osatzen dute, eta, kasuren batean, museorik ez duten baina helburu horretarako objektu-bilduma egiten ari diren udalerrien bildumek. Dagoeneko 10.000 fitxa egin diren arren, banaketa oso irregularra da, erakunde bakoitzaren lan-erritmoaren arabera. Fitxak egiteko irizpideak ez dio erantzuten ondare-elementuak bilatzeko alde aurretik prestatutako plan bati, alde aurretiko errealitate bati baizik.

Ondare higiezia

Ondare higiezinari dagokionez, irizpideak askoz sendoagoak dira. Aurretiazko eskema batetik abiatzen da, eta han txertatzen dira inbentariatutako elementuak. Erreferentzia izan daitekeen heinean, merezi du oraindik ere oso eskema arkitektonikoetan oinarritutako tipologiak txertatzea: nekazaritza eta abeltzaintzako eraikinak, oroipen-eraikinak, zerbitzu-eraikinak, hornidura-eraikinak, industria-eraikinak, eraikin militarrik, erlijio-eraikinak, bizitoki-eraikinak, muga-gurutzeak eta lurraldeko azpiegiturak. Eskema teoriko horren bidez, 7.000 elementu baino gehiago inbentariatu dira, eta, irizpide etnografikoagoaren arabera, honela sailkatu dira: industriaurreko ondarea; industria-ondarea; ekipamendu tekniko kolektiboak, komunikazioak eta obra publikoak; arkitektura zibila; landako ondarea; erritu-ondarea eta arkitektura militarra.

Azken emaitza nahiko homoginoa eta koherentea da hedaduran, xehetasunetan eta deskribapenen tonuetan, eta hori fitxa osatu baina erraz baten eta fitxak egiteko (txantiloia elebiduna da) modu erraz eta ordenatu baten emaitza da.

Hutsune gisa ikusten da inbentarioko erregistro horiek testuingururik ez izatea; izan ere, testuingurua beharrezkoa da Valentziako legean aurreikusten den kultura-parkea katalogazioa izan lezaketen espazio zabalagoen zati izateko.

Ondare materiagabea

Berrito ere, zehaztapen praktikorik ez duen babes generikoaren aurreikuspena dugu aurrean, ondare materiagabeari dagokionez. Ez da arraroa ondare materiagabearien inbentarioa egiteke izatea, ez baitira garatu lan hori

Ondare higigarria museoen sarearen bildumaren elementuek osatzen dute, eta, kasuren batean, museorik ez duten baina helburu horretarako objektu-bilduma egiten ari diren udalerrien bildumek

erraztuko luketen erregelamenduak. Hala ere, Etnologia Zerbitzua lanean ari da prozesioren eta festaren bat in-terres orokorreko ondare izendatzeko, baita ofizioen bat izendatzeko ere, zailagoa den arren.

Valentziako Diputazioak, hala ere, ahozko ondarearen inbentarioa egin du bi eskualde jakinetan, Museo d'Ét-nológi-a museoaren bidez. La Fonoteca de Materials proiektuak hogeita hamar lan baino gehiago argitaratu ditu. Landa-azterketak dira, herrietako ikasleek herri-elkarteen laguntzaz jasoak.

3.3. Asturias: etnografia-museoen sarea

Ohikoa da inbentarioak egiteko eskumena lurralde horretatik hurbil dauden erakundeen esku uztea: diputa-zioen, eskualdeetako batzordeen, uharteetako kabildoen, udalen, lurraldeetako museoen eta abarren eskuetan, hain zuzen. Horrelaxe planteatzen da Asturiasen ere, eta sareko museoen eta antropologiako unibertsitate-ikasleei emandako beken bidez gauzatzen da lan hori. Kataluniako antenen kasuan bezala, metodo profesionala eta lu-rraldearen ezagutza uztartu nahi dira.

Asturiasen, "Asturiasko Herrien Museoak" sarearen zuzendariak bi bide proposatzen ditu inbentarioa egiteko:

- Inbentarioan sar daitezkeen eta Asturiasko legeak aurreikusten dituen hiru kategorietako batean babesteko mo-duko ondareen erregistro-sistematikoa.
- Jasotzen diren elementuen azterketa monografikoa: iturriena, erromantzeena, garaiena, bideena edo *brañas* direlakoena.

Planteamendua Kataluniakotik hurbil dago, ez baitu erregistratzeagatik erregistratzen. Jakitun da ikertzen diren elementu gehienak desagertu egingo direla denbora gutxian, eta etorkizuneko azterketarako balio badu soilik iruditzen zaio garrantzitsua horien berri jasotzea.

3.4. Errioxa: nortasun-ezaugarri baten aukeraketa

Errioxako Kultura, Historia eta Arte Ondareari buruzko 7/2004 Legean, jarduera hau jasotzen da, *besteak beste: tratamendu zehatza, katalogazioari dagokionez, Atlas Etnografiko berriaren bidez. Ondare higiezinen artean, herri hustuen, mahastizaintzako eta ardogintzako eraikinen eta, bereziki, upeltegien babesa nabarmentzen da.*

Behin baino gehiagotan azpimarratzen du ardoaren kulturari nortasun-ezaugarriaren izaera bereziki garrantzit-sua ematea Errioxan. Eztabaidaezina da ardoa garrantzitsua dela Errioxan, baina arraroa da kanpoan gehien identi-fikatzen den elementua indartzea legeak; izan ere, ardorik egiten ez duten eskualde osoak daude, eta, bitxia bada ere, horiek izan dira tokiko nortasuna gehien landu dutenak –artzain-kultura transhumantearen inguruan–.

Asturiasen ere, sareko museoen eta antropologiako unibertsitate-ikasleei emandako beken bidez gauzatzen dira inbentarioak

Errioxakoa salbuespena da autonomia-erkidegoen legeen artean; izan ere, kultura-aniztasuna, adierazpen-moduen aberastasuna eta adierazpen-aldaerak azpimarratzera jotzen dute.

3.5. Kantabria: sailkatzeko zenbait kategoria

Autonomia-erkidegoetako lege gehienetan, interes etnografikoko tokia edo antzeko izendapen bat txertatu da kategorietan. Praktikan, ordea, ez dago kategoria horri eusten dion izendapen ofizialik. Zabalena denez (gain-jartzen diren hiru kategoria ditu), Kantabriako legearenak aurkezten dira:

- Interes etnografikoko tokiak: bizimodu, kultura eta jarduera tradizionaleri lotutako natura-inguruneak, erakuntza- edo instalazio-multzoak.
- Kultura-paisaia: lurraldearen berariazko zatiak, gizakiaren eta naturaren lanak osatuak, gizakien gizartearen eta kokalekuen bilakaeraren berri ematen dutenak.
- Kultura-bideak: izaera kulturalerako ibilbide bati lotutako paisaia-segidek osatutako egiturak.

Kategoria juridiko horiek ez dute, oraindik, zehaztapen praktikorik, eta horrexegatik izan daitezke orientagarriak Euskadiko errealitaterako irtenbideak imajinatzeko garaian. Zalantzarik gabe, Euskadiko zenbait ingurune Kantabriako kategoria horietakoren batean sar litezke; esaterako, transhumantziako bideen edo Erdi Aroko galtzaden zenbait zati, erromeriak ospatzeko lekuak eta parke natural guztietako espazioak (handiagoak ala txikiagoak); esaterako, Gorbeia-koak, Urkiola-Anbotokoak, Aralarkoak, Urdaibaikoak, Aiako Harrikoak...

Legeak oso generikoak dira, eta ez dute zehazten nola zaindu eta babestuko diren halakotzat katalogatutako lekuak. Baliteke ezaugarri horretan egotea legearen abantaila edo ahultasuna: definizio ezak erabilgaitz egin dezake, ala erabilera anitzeko. Askotariko errealitateetan ezar daitezke (goian aipatutakoetan, adibidez), ala birtualtasun juridikoan tratatuta geratu. Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Museoei buruzko Legearen proiektuak hauek hartzen ditu museotzat:

Museotzat joko dira historia, arkeologia, ekologia, industria, etnologia, natura edo kulturaren alorretan baliola duten espazio eta monumentuak edo ondasun higiezinak, baldin eta kultura-ondasunak edo ondasun biziak bildu, kontserbatu eta zabaltzen badituzte.

Juridikoki museotzat hartzen diren "etnografia-baliadun espazioak" kategoriak irtenbidea eman diezaietke etnografia-ondareari buruzko zenbati gairi.

Legeak oso generikoak dira, eta beraz, definizio ezak erabilgaitz egin dezake, ala erabilera anitzeko

4. ONDORIOAK: LABURPENA ETA BIDEA FINKATZEKO ILDOAK

1. **Euskal Herrian, landa-lanerako bi lan-ildo handi** daude, etnografia-ondarerako erabiltzen direnak: Barandiaranen metodologiari jarraitzen dion ildo eta unibertsitate-eremuko antropologiatik sortzen dena. Arraroa da bi ildo nagusi horiek bat egitea ikerketetan eta jardueretan. Aurretiazko txostenetan, inbentarioa egiteko garaian bi metodologiaren ezagutza bateratzeko beharra adierazten da.

2. **Ondare higiezinari dagokionez**, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Lurralde Planaren aurrerapenean, izaera arkeologikoko ondareez gain, babes orokorra edo udal-babesa duten 8.600 elementu arkitektoniko sartu dira. Oso oinarri sendoa da etnografiako ondare higiezinaren inbentarioari ekiteko.

3. **Ondare higigarriari dagokionez**, Gipuzkoako Foru Aldundiak etnografia-izaerako funtsez jabetzeko politikari jarraitu dio azken 20 urteotan, eta etnografia-objektuak inbentariatzeko eta horiekin erakusketak egiteko programa bat sustatu du: *Zaharkinak*. Inbentario horiek abiapuntu onak dira ondare higigarrien inbentarioa egiteko.

4. **Ondare materiagabeen inbentarioa** izan daitekeenaren hastapenak, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako festa eta dantzen egutegia. Unibertsitateko profesional batek zuzendu eta gai jakin bati buruz behar bezala prestatutako jendeak aurrera eramandako lana ere horren adibide da. Foru-aldundiek edo udalek ez dute beren gain hartu antzeko lanik. Planifikatutako datu-bilketak (*Euskal Herriko Atlas Etnografikoa*, esaterako) edo ahozko tradizioaren artxiboak sortzeko lanak (*Eibartarren ahotan* edo *Nafarroako ahozko ondarearen artxiboa*, adibidez) ekimen pribatuak dira, laguntza publikoa jasotzen duten arren.

5. **Tradizioaren eroaleak** dira ondare materiagabeen oinarria; gainbehera datozen edo erabiltzen ez diren eza gutzen, tekniken eta jardueren eroaleei dagokionez, funtsezkoa da eroale horiei buruzko informazioa jasotzea. Autonomia-erkidegoetako legeak jabetu dira ondare hori garrantzitsua eta ahula dela, baina ez dute zehazten "tradizioaren eroaleak" terminoa, ezta hain garrantzitsua iruditzen zaien lan horri ekiteko modua ere.

6. **Kultura Ondareari buruzko egungo Legea (7/1990)** ez dirudi nahikoa denik etnografia-ondarea eragin-kortasunez babesteko, kontuan izanik zer garapen izan duen interes etnografikoko tokia moduko babes-kategoria aurreikusten duten beste autonomia-erkidego batzuek onartutako legeetan.

7. Euskadiko legean, **finantza-laguntzak eta laguntza fiskalak** aurreikusten dira katalogatutako ondareen **ja-beentzat**; ondare batean garatzen den funtzioa etetea ere aurreikusten da, funtzio hori jatorrizkoa izan arren ondare horren kontserbazioa arriskuan jar badezake. Etnografia-ondareari dagokionez, kontraesantzat ere har

Euskal Herrian, landa-lanerako bi lan-ildo handi daude, etnografia-ondarerako erabiltzen direnak: Barandiaranen metodologiari jarraitzen dion ildo eta unibertsitate-eremuko antropologiatik sortzen dena. Arraroa da bi ildo nagusi horiek bat egitea ikerketetan eta jardueretan

daiteke; izan ere, funtzio hori ondarea bera bezain garrantzitsua edo ondarea baino garrantzitsuagoa izan daiteke, eta gerta liteke ekonomia-laguntzak urriak izatea erabiltzen ari den ondare bat mantentzeko.

8. Etnografia-museoen egoera asko aldatzen da Euskadiko lurralde batetik bestera. Eskuarki, txikiak izan ohi dira, eta ekonomia-baliabide eta giza baliabide gutxi izaten dituzte. Museo guztien artean, Bilboko Euskal Museoa nabarmentzen da, dituen neurriengatik eta izan duen ibilbideagatik; baina, Kepa Fernandez de Larrinoaren txostenaren arabera, oraindik urrun dago Euskal Antropologia Museoa izatetik –museo hori Euskal Etnografia Zentroaren mendeko erakunde edo erakunde laguntzaile izatea proposatzen da (ondoren aipatzen da)–.

9. Euskadiko legean, Arte Ederren, Monumentu Ondarearen eta Arkeologiaren aholku-batzordea sortzea aurreikusten da, baina ez etnologia-ondarearen edo antzeko zerbaiten aholku-batzordea sortzea.

10. Euskadiko legea hedagarria da teorian, baina trinkoa praktikan; izan ere, elementu jakin batzuen babesa eta babestutakoa kontserbatzeko laguntzak mugatu egiten dira. Legean, gainera, ez da aurreikusten ondare materiagabea babesteko aurreikusten den moduko irudi juridikorik sortzea **ondare materiagabea babesteko**.

Kulturaren Euskal Planaren aurretiazko txostenek ondokoa proposatzen dute (11tik 14ra):

11. Euskal Etnografia Zentroa sortzea, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren barruan, eta zentroak Kataluniakoaren ereduari jarraituko dio.

12. Euskal Etnografia Zentroaren barruan Behatokia sortzea, eta Kataluniakoaren ereduari jarraituko dio.

13. Aurretiazko inbentarioa sortzea lehentasunezko lehen jardueratzat, etnografia-ondarea legez babesteko. Administrazio publikoek eta museoek egindako inbentarioak badaude, eta horiek izan litezke etnografia-ondarearen oinarria. Ildo berean, hainbat institutuk, elkartek eta museoek ikerketak eta datu-bilketak eginak dituzte, eta ondare materiagabearen inbentarioaren oinarri gisa erabil litezke.

14. Euskal Antropologia Museoa sortzea, museo hori tokiko eta metropoliko museoaren erakunde gidari moduan ulertzen da.

15. Euskal etnografia-ikerketetan, gero eta nabarmenago agertzen da euskal gizartea azkar ari dela aldatzen, eta landa-mundua desagertu egingo dela ere aipatzen da. Landako ondarean oinarritutako garapen sozioekonomikoko ereduak –betiere paisaiari eta naturari hertsiki lotuta daudenak– aztertzea izan da antropologia aplikatuaren lan-ildoetako bat. Natura eta paisaia espazioa hartzeko eta erabiltzeko modu jakin gisa hartzen dira, baliabideen erabilera tradizionalaren ikuspegiari lotuta.

Euskal etnografia-ikerketetan, gero eta nabarmenago agertzen da euskal gizartea azkar ari dela aldatzen, eta landa-mundua desagertu egingo dela ere aipatzen da

16. Berriki onartu du Gobernu Kontseiluak **Euskadiko Museoei buruzko Legearen proiektua**, eta balio etnografikoko espazioak aurreikusten ditu; museoen kategoria juridikoa ematen die, gainera, espazio horiei.

Irudi hori beste lege batzuetan (oraindik garapenik gabe) interes etnografikoko tokitzat aurreikusitakoaren antzekoa izan liteke, baina ez du, ezinbestean, lurralde zabal bat hartu behar, eta ez du zertan izan askotariko ondare-multzoa. Hala ere, Euskadin ez gaude espazio nahiko txikian etnografia-balio handiko ondare higiezinak, higigarriak edo materiagabeak biltzen dituzten lekuen edo multzoen faltan. Bizirik eustea da erronka, eta beste gizarte- eta ekonomia-balio batzuekin bizitzea.

Berriki onartu du Gobernu Kontseiluak Euskadiko Museoei buruzko Legearen proiektua, eta balio etnografikoko espazioak aurreikusten ditu; museoen kategoria juridikoa ematen die, gainera, espazio horiei



kulturabehatokia@ej-gv.es